



**BATAIOA**

**ZAP!**

**HARRERA EGITEN**

**IKASI**



## I SENAK

Azken urteotan, sekularizazio prozesu sakona bizi izan dugu. Prozesu horren eraginez, gure gaurko gizarte honetan, zorioneko izateko eta osotasunean bizitzeko Jainkorik ez duela behar pentsatzen du lagun askok eta askok. Zerumuga berri honetan, aiene eta kexuak alde batera utzi eta begiradaz aldatzea dagokigu.

Maiz ahazten dugu...

**Jainkoa ez zaiela bihotz zintzoz  
bere bila ari direnei ezkututzen,  
itsumustuka, zehaztugabe, era lausotuan ari badira ere<sup>1</sup>**

Fedearen ikuspegi barri honen barruan, makina bat kasutan familia dagoeneko ez da erlijio esnatzerako leku naturala. *“Gaurko gizartean, eremu erlijiosoarekin zerikusirik ez duten pertsona helduak daude; batzuek ez dute mezu erlijiosoa jaso eta beste batzuek, nahiz eta jaso, esperientzia mingarria dute erlijioari lotuta edo erlijioaren kontua sinpleegia da. Hala ere, hor dago beren ahal espirituala eta hori hezi egin daiteke”<sup>2</sup>.*

Kasu batzuetan, fedea bizitzeko aukera ez da bikotekide bien kontua; beste batzuetan, pertsonak ez dute beharrezko tresnarik transmisiorako eta badira Jainkoa denik ere ahaztu egin dutenak edo inoiz ez dela izan pentsatzen dutenak ere. Gaur egungo pertsona helduek – familiak bataioa zer dela-eta eskatzen duten galderan sakonduz gero, askotariko erantzunak jasoko ditugu. Indarra galdu du konbentzionalismo sozialak, edo sakramentua gizarte ekintza huts bezala ospatzeko ohiturak. Sakramentua eskatzera hurbiltzen direnak ez dira erantzun zehatzik emateko gauza, baina sakonean, bataioa eskatzen duen hainbatek Jainkoa “badela” sumatzen duelako egiten du.

Gizarte testuinguruak fedearen transmisioa era naturalean gertatzea ahalbideratzen zuen kristandadearen aroa atzean utzita, harrera, aurreiritzi eta baldintzarik gabe egiteko diosku Aita Santuak. Abian den Eliza izateko dei egiten digu, iturrira, Nazareteko Jesusengana, bihurtuko den Eliza eta gaurko munduan berri ona aurkezteko bideak bilatzeko gai den Eliza.

Gaur egun, inoiz baino zentzuzkoagoa da pertsona helduak – familiak beren seme eta alabentzako bataioa eskatzera gure kristau elkarteetara hurbiltzen direnean, lehen une hori, harrera, bereziki zaintzea.

 Nazareteko Jesusen mezua indarrean dela eta beren seme eta alabek sinesteko aukera izan dezatela merezi duela pentsatzen duten gure elkartearen inguruko heldu edo familiekin hartu-eman izateko aukera ematen digulako.

 Bere misioa erantzukizunez bete nahi duen Elizak harrera, hausnarketa eta akonpainamendurako eremuak eskaini behar dizkielako beren seme eta alabek, egunez egun beraiekin bidea eginez, Jainkoa aurki dezaten abentura honi ekin nahi dien pertsona helduei eta familiei.

<sup>1</sup> Frantzisko Aita Santua, Evangelii Gaudium 71. zenb.

<sup>2</sup> Torralba, Francesc, “La Inteligencia espiritual en los niños” Plataforma editorial argitaletxea 2012

Aro berrian, edozein prozesutan da ezinbestekoa “babes edo aterpe izateko”<sup>3</sup>, harrera egiteko, laguntzeko, fedea proposatzeko eta ondorengo kasuetarako eremuak antolatzeke prest dagoen “elkarte abegitsua”.

- ➡ Hurbiltzen den pertsona heldu eta familia askok eta askok ia ez duela ebanjelioaren berririk.
- ➡ Oinarrizkoa berreskuratu egin behar dugula, Nazareteko Jesusengana eta muga eta aurreiritzirik gabe jendea hartzeko zituen jardunbideetara bihurtu beharra dagoela.
- ➡ Gure Pastoral Barruti eta parroketan harrera egiten duten pertsonak direla Elizaren lehen “aurpegi” eta, beraz, ebanjelioaren iragarpenaren hastapenetan bereziki gertuko izan behar dutela.
- ➡ Jesusen berri ona ezagutzera emateko ardura kristau elkarte osoarena dela eta, ondorioz, gaur inoiz baino gehiago, ezinbestekoa dela sarean lan egitea, bataioa prestatzeko begira egin beharreko harrera eta batzarrez arduratzen diren taldeen eta erlijio esnatzeaz arduratzen diren arteko koordinaziorako eremuak sortzea.

Elkarte abegitsuak, besteak beste, argi izan behar ditu bi ideiak:

- ✳ “Ebanjelioaren poza” helarazteko gai izan behar dugula, Jainkoak bizitzarako proposatzen digun egitasmoaren xede nagusia geure zoriona delako.
- ✳ Lehen iragarpen honetan, pertsona helduengan eta familietan Jainkoari buruzko ideia, irudia eta sentimendua sortzen saiatu beharko genukeela.

## II JARRERAK

Gizartea sekularizazio-prozesu sakonean murgilduta dago; bistakoa da hori hainbat arlotan: ohitura eta jardute erlijiosoen gutxitzea, sakramentu-ospakizunen egundoko jaitsiera, bokazioen krisia eta kristau elkarteetako etengabeko zahartzea.

Fedearen ikuspegi berri honetan<sup>4</sup>, kristau elkarteak bere begirada berritu egin behar du. Gaur inoiz baino gehiago, ezinbestekoa da lehen iragarpena aldarrikatu eta bultzatzea eta Nazareteko Jesusen ezer gutxi jakinda hurbiltzen direnei harrera egiten ikasteko prestatzea. Gure elkarteek benetako “elkarte abegitsu” izan nahi badute, harrera, zerbitzuen antolamendu eta eskaintza hutsa ez ezik, izateko eta egiteko era dela ulertu behar dute.

### ★ IZATEKO ERA

- **Entzun**, Jesusek egiten zuen bezala. Pertsonarengan arreta jarri, bere sentimenduak, bere bizipenak, bere zailtasunak ulertu. Denbora eskaini, konfiantza osoz hitz egin eta begirunea senti dezan.
- **Enpatia izan**, Jesusek begiratzen zuen bezala begiratu. Hurbiltzen diren pertsonen lekuan jartzen saiatu, beren barrualdean zer sentitzen duten hobeto antzemateko.
- **Errealista izan**, aztertu, Jesusen egiten zuen bezala. Pertsonaren errealitate jakinetik, bere eskari, behar edo mugetatik abiatu.
- **Sinetsi**, pertsonengan sinetsi, Jesusek egiten zuen bezala. Beren gaitasunetan, ametsetan, dohainetan... sinetsi.
- **Onartu**, Jesusek bezala. Gizakia bere izaeran aitortu, bere makaltasun eta mugekin.

3 RAE, bigarren adiera, <https://dle.rae.es/acoger?m=form>

4 E. Biemmi, “El Segundo Anuncio. La Gracia de volver a Empezar”, Sal Terrae arg., Santander 2013.

- **Izan**, Jesus bezala
  - Aurreiritziak ezabatu; hurkotasuna, prestasuna, zerbitzu-sena eta errespetua.
  - Egiten duguna, musu-truk egin
  - Pertsonarengan konfiantza izan.
  - Proposamenak egitera ausartu.



## **EGITEKO ERA**

- Gure elkarteetara hurbiltzen direnek Jainkoaz duten esperientzia ezagutzen saiatu eta onartu.
- Maitasuna den Jainkoaren esperientzia bizi izateko giroa sortu.
- Gizon eta emakumeen esperientziari eta egoerari erantzun dieten prozesuak eskaini.
- Taldean lan egin pertsonari pastoral erantzun egokiak eskaintzeko.
- Bataioa prestatzeko taldeen eta, egonez gero, esnatze erlijiosorako taldeen arteko koordinaziorako eremuak sortu, harreretara hurbildu diren pertsonen perfilaren berri emateko.

Harrera egitea, geure eremura "gonbidatutako" pertsonari sartzen uztea da. Harrera leku pribilegiatua da elkarrekiko erlaziorako, eta bizipenak batera jartzera, pertsona "geure elkarteko" kide egitera eramango gaituen hartu-emanari ekiteko lokarriak sortzeko.

## **III PASTORAL IRIZPIDEAK**

Ez dugu ahaztu behar, orain dela gutxira arte, gehienak seme eta alaba jaio berrientzako bataioa eskatzera hurbiltzen zirela gure kristau elkarteetara, baina gauzak asko aldatu direnez, gaur egun, askotariko egoerak aurkitzen ditugula eta, jakina, horiek askotariko erantzunak eskatzen dizkigutela.

- ⚡ **0 eta 3 urte bitarteko haurrak.** Aitek eta amek gure elkartean bataioa prestatzeko antolatzen diren batzarretan parte hartuko dute.
- ⚡ **Katekesiko edo nerabezaro aurreko taldeetako neskato eta mutikoak.** Bataioa hartuko duten neska-mutikoen katekistekin, begiraleekin edo laguntzaileekin koordinatzeko eremua sortu beharra dago, sakramentua partaide izan diren berdinen taldeetan garatutako dinamikez baliatuz prestatzeko. Sakramentua hartuko duten neska-mutikoen familiekin batzarra egin, sakramentuaren, bere senaren, dakartzan konpromisoen, zeinuen, esanahiaren... inguruan elkarriketan jarduteko.
- ⚡ **Helduak.** Katekumenotza-prozesua martxan jarriko da eta, burutu ondoren, pertsonak kristau sarbideko hiru sakramentuak hartuko ditu: bataioa, eukaristia eta sendotza.

Errealitatea aldakorra izanik, harrerarako taldeek irizpide batzuk izango dituzte gure elkarteetara bataioaren sakramentua eskatzera hurbiltzen diren pertsonari arreta egokia emateko.

- ⚡ Parrokia bakoitzak, edo dagokionean pastoral barrutiak, harrera iraunkorra eskainiko du beren seme eta alabentzat Bataioa eskatzen duten gurasoentzat.

- Harrerarako taldeen helburua, sakramentua eskatzen duten pertsonen errealitatea ezagutzea izango da, elkarriketari bide eman eta, besteak beste, ondorengo hauen inguruan jardunez:
  - Sakramentuaren aurrean dituzten itxaropen eta aukerak.
  - Bataioa eskatzeko eragileak.
  - Ahal izanez gero, hurbildu direnen fede ibilbide eta esperientziari buruz zer bait ezagutu.
- Bataioa prestatzeko batzarretan parte hartzera bultzatu, zein egunetan izango litzatekeen eta zein gairen inguruan jardungo luketen azalduz: *"Izaten ikasi"*, *"Sinesten ikasi"* eta *"Kide izaten ikasi"*.
- Bataioa prestatzeko batzarrak beren seme edo alabaren Bataioa eskatzen duten gurasoentzat dira. *"Aita-ama pontekoei be dei egin diezaiekegu batzarretara etor daitezen"* (Ik. KSD, 80. zenb.)
- Aita-ama pontekoak aukeratzean,<sup>5</sup> hauek kontuan hartuko dira:
  - Aita-ponteko eta ama pontekoa aukeratu daitezke, edo, bakarrik ama-pontekoa edo bakarrik aita-pontekoa.
  - Aita-ama pontekoak gutxienez 16 urte izatea eskatzen bada ere, egiteko horretarako aukeratutako pertsonak kristau heziketa, esperientzia eta bizitza izatea da garrantzitsuena, horrela izango baitira gurasoei bataiatuen kristau hezkuntzan eraginkortasunez laguntzeko gauza.<sup>6</sup>
- Arau orokor bezala, gurasoak kide diren edo normalean parte hartzen duten parrokiari hartuko da Bataioa.
- Familiaren batek bere seme edo alabaren Bataioa beste parrokiaren batean ospatzea edo, gure parrokiakoa ez izanik, sakramentua hemen ospatzea eskatuko balu, egoera aztertuko da, pastoral arrazoiak kontuan hartuta. Bi kasuetan, dei egingo zaie delako pertsona horiei beren jatorrizko parrokiari edo normalean parte hartzen duten parrokiari bataioa prestatzeko batzarretan parte har dezaten.

Dena dela, gizarte honetan egoerak gero eta korapilatsuagoan direnez, pastoral irizpidea lehenetsiko da. Patxadaz harrera egin, aurreiritzi gabe entzun..., horrela gauzak hobeto egingo ditugulako helburua lortzeari begira. Ez dezagun ahaztu egundoko erronka dugula aurrez aurre, Nazareteko Jesusen antzera harreragile izateko.

5 Ez da erraza izaten aita-ama pontekoak aukeratzea. Harrerarako taldeen eginkizuna funtsezkoa da aukeraketa-prozesuan laguntzeko, batzuetan, gurasoek aukeratzen dituzten pertsonak ez dituztelako egiteko horretarako ezinbesteko baldintzak betetzen. Pastoral zuhurtzia, hurkotasuna eta elkarriketa funtsezkoak izango dira honelako egoeretan.

6 Ik. KSD, 72. eta 81. zenb.